

Antxiñako fotografixak

Duru aldeko kontuak

Duru aspalditik izan da Oñatiko artzain-leku eza-gunetakua. Oñatiarrok, baldintza batzuekin eta egunaz Urbixara ardixak eruateko eskubidia euki arren, han etxabolak egitterik ezkeben izan, partzonerixak ezkiñan-eta. Horregatik **Aloñazihar** aldian ibili izan dira gehixen bat gure herriko pastoriak eta ganaduzaiñak, XV. gizalditik aurrera gutxienez. **Olabarrieta, Murgixa, Berezaio, Lezesarri, Uribarri, Arantzazukuak** eta beheargoko beste auzo batzuetakuak be bai: **Zubillaga, Garibai** eta **Zañartukuak**, adibidez. Azken auzo honetakuak bedarretara faten ziran, batez be, Aloña eta Arantzazu arteko bizkar aldapsu horreittara.

Azkenengo hamarkadetan asko aldatu da pastoretzaia. Era zaharreko banaka batzuk oraindiok geratu arren, gehixenak modernizau egin dira. Eztago alperrik Duru inguruan **Gomis-tegiko** (bai, holaxe, s-rekin) artzain-eskolia. Lehengo etxabola batzuk barriztau egin dittue eta mendiko aterpe moduan ebalten dira orain. Zihero barrixak be jaso izan dira beste batzuk. Orain dala berrogeita hamar bat urte eraiki euen **Unamendi** izeneko lehenengo aterpeia. Honeitxek izan ziran hasierako hamahiru fundatzailliak: **Juanito Arkauz, Kukarro; Xabier Arrazola, Kurtiderixakua; Felix Arregi, Arrillagana; Joxe Beitia, Kastillona; Joxe Mari Irizar, Martezkua; Joxe Mari Letamendi**, plazako dendakua; **Xegundo Martinez de Iturrate, Milikua; Federiko Mendizabal; Karlos Moiua, Tokillo; Migel Mugartza; Joxe Otalora; Juan Joxe Telleria**, Donostiako *Iturrioz* tabernakua; eta **Bixente Unamuno**, Kale Barriko estankokua. Gaur egun beratzi dira Unamendiko bazkidiak.

Argazkittan horreittako batzuk ikusi geike. Batian, **Xegundo Martinez, Karlos Moiua** eta **Federiko Mendizabal** Unamendin bertan. Bestian, berriz, ezkeraldian **Joxe Beitia, Anjel Altuna, Patxi Igartua** eta **Joxe Luis Lizarralde**, agustiñua; eskumaldian **Juanito Arkauz** eta **Felix Anduaga, Xilberiona**; eta zutik **Joxe Mari Agirrebaltzategi**, parrokiako abadia; puntura arte **Euxebio Agirre** Alkortako pastore klasikuak ebalittako etxaboliaren onduan agiri dira mendizale txantxikuarrok, 1968ko San Fermin egunian ataratako fotografixa honetan.

Artzaiñak urritu baldin badira be, Duru eta inguru horreittarako jokeriak indartsu jarraiketan dau gure artian. Durun bertan hamabi bat etxabola edota aterpe dira; Lizartza eta Belar aldian beste hamabi; eta Mailla eta Eskistako parajietan hamar; barriztauta eta egoera onian dagoz gehixenak. Aldizkari honetako beste orrialde batian irakurri zeikieñez, aurten X. aldiz ospatuko daue **Duruko Eguna**, hil honen 28xan eta 29xan, antxiñako artzain-leku hori hainbeste maitte dauen adiskidiak.

J. E.

Argazkixak eta informaziñorik gehixena Jexux Beitiak eskuratu dosku. Ana Mari Martinez de Iturrate, Felix Arregi eta Joxe Antonio Azpiakuz be xehetasun batzuk argittu doskue. Milla esker danoiri!

